


## KOSTUEN EGITURA

Balioan oinarritutako negozio-eredua izanda, garrantzi handiagoa eman diogu bezeroarentzako balioa sortzera kostuak minimizatzeari baino. Gure enpresaren kostuen egiturari dagokionez, kostu finko zein aldakorren artean bereiztu beharko dugu.

Hurrengo taulan ikusi dezakegun moduan, kostu finkoak ibilgetuaren materialen amortizazioak (hauen bizitzaren arabera izanik), lokal bat erosteak ekarriko duen hipotekak eta finko ditugun kualifikazio altuko langileen soldatak osatzen dituzte. Hauen artean, makinek suposatzen dute gehiengoa; alegia, guztizko kostuen %53,5a.

Mota	Kostua	Azalpena	Kostu totalaren ehunekoa (%)	Esteka
Ibilgetuen amortizazioa	3.891.756,89 / 10 = 389.175,89 €	Ensanblazeko hiru makina 6.891.756,89 €-rengatik amortizatuko ditugu 10 urtetan zehar	53,54	
Lokalaren hipotekaren interesak	1731 €	Lokalaren hipoteka amortizatzeke, hilabetero %1,1-eko interesa ordainduko dugu 300.000 €-ko hipotekaren gainean	0,24	<a href="https://financer.com/es/calculadora/calcular-amortizacion/">https://financer.com/es/calculadora/calcular-amortizacion/</a>
Langileen soldatak	15x1600x14 = 336000 €	Bataz beste langileei 1600 €-ko 14 paga ordainduko dizkiegula kalkulatuta (lanbidearen arabera prezioa aldakorra izango da) 336000 €-ko gastua	46,22	
<b>Guztira</b>	<b>726.906,89 €</b>	Gure kostu finkoen totala honako hau izango da	<b>100</b>	



Hau izango da lokalaren hipotekarengatik bueltatu beharko dugun diru-kopuru totala, hoietatik 43.374,86 € %1,1 interesa direlarik.

Aldiz, gure kostu aldakorrak hornitzeko behar izango ditugun materialez osatuta daude.

Mota	Kostua	Azalpena	Kostu totalaren ehunekoa (%)
Sensoreak	10 € / unitate	Unitateak masiboki erosiko ditugunez, unitate bakoitzeko eskala-kostuak dela eta deskontu handiagoak lortuko ditugu.	17,85
Kanpo-egitura	20 € / unitate	Produktuaren kanpo-egituraren, plastiko berziklatuaz egindakoa, produkzioa externalizatu egingo dugu, eta makina 3D bitartez ekoiztuko da.	35,71
Barrubiguna	5 € / metro karratu	Material biguna erabiliko dugu plastikozko egitura estaltzeko.	1,78
Plaka elektronikoak	25 € /unitate	Plaka elektroniko zentralak beharko ditugu bildutako informazio neurologikoa prozesatu eta eraldatzeko zapore berriak sentiarazteko. Hauen produkzioa ere externalizatu beharko dugu.	44,46
<b>Guztira</b>	56 € / unitateko	0'2 metro karratu barrubigun makinako erabiliko ditugula kontuan hartuta, azkenean kostu aldakorren totalaren unitateko prezioa 56 €-koa izango da.	100

URTEKO KOSTU ALDAKORREN ESTIMAZIOA	
Unitateko prezioa	Itxarondako eskaria
56 €	10.000
<b>GUZTIRA</b>	560.000 €

Urteko kostu aldakorren unitateko prezioari kostu finkoen unitateko prezioa gehituz gero, 128,69 € -ko prezio totala lortzen dugu. Produktutik %50-ko marjina lortu nahi dugula kontuan hartuta, guztira **257,38 €**-ra salduko dugu gure produktua.